

Batzar Orokorra

2023/06/29

Aurkibidea

Aurkibidea	2
1 Sarrera	3
2 2022ko memoria	4
2.1. Jarritako helburuak – lorpenak	4
2.2. 2022ko jarduera lan-ildoka	6
2.3. 2022ko kontuak	15
3 2023ko kudeaketa plana eta aurrekontuak	16
3.1. helburuak	16
3.2. Jorratuko diren lan-ildoak	17
3.3. Proiektuen aurrekontuak	21

1 Sarrera

Biziola irabazi asmorik gabeko Kooperatiba hiru urteko lanaren emaitza da. Goierri eskualdeko ekonomia sozial eraldatzaileko eragileak Biziola elkartean batzen hasi ziren eskualdean etorkizunera begira proposamen ekonomiko berriak eraikitzeko. Bide horretan aldarrikapenak egitetik harago, identifikatutako erronka zehatzei erantzuteko proiektu sozioekonomiko berriak artikulatzea du asmo Biziolak ondoko helburuak buruan:

- Goierri burujabeago bat nahi dugu. Gure etorkizunaren gaineko erabakiak guk geuk hartzeko aukerak handituz bizitzako eremu guztietan. Eskualde kohesionatuago eta komunitarioago bat eraikiz.
- Goierri orekatuago bat eraiki nahi dugu. Desberdintasun sozialik gabea, genero arrakalarik gabea, anitza, herrien arteko oreka zaindu eta landuko duena, eremu sozioekonomiko ezberdinen artean orekak landuko dituena, ekonomia pluralago bat eraikiz.
- Eta azkenik Goierri iraunkorrago bat eraiki nahi dugu. Bizi garen lurraren mugak kontutan hartu eta krisi klimatikoari aurre egingo diona. Finean bizitzaren iraunkortasuna bera, erdigunean jarriko duen eskualde bat. Produktiotik haratago erreprodukzioa ere aintzat hartuko duena. Bizigaren lurra eta lur horren gainean gabiltzan bizikideak elkar zainduko dugun eskualde bat.

Urtebeteko bidea egin da iada, eta denbora tarte honetan, errektore kontseiluak, talde eragileak eta lantaldeek funtzionatu dute. Errektore kontseilua tartekago bildu bada ere, talde eragilea izan da modu operatiboan 2-3 asteko jarraikortasunez bildu dena. Bertara eraman dira lan-talde desberdinetan sortzen ziren kezka edo erabaki beharrekoak, eta bilera hauek izan dira erabakigune nagusi. Proiektuak behin martxan jarri direnean, beren koordinazio mahaiak dituzte, eta modu autonomoan funtzionatu dute, emandako aurrerapenak talde eragilerak komunikatuz. Eta landataldeei dagokienean, obra-denda-espazio lantaldea, elikadura lantaldea eta komunikazio lantaldea jardun dira 2022-2023 denbora tartean aktibo.

Egun, bi langile ditu kooperatibak, zeinek dendaren ardura eta proiektuen koordinazioa bideratzen duten.

2 2022ko memoria

- 2.1. JARRITAKO HELBURUAK – LORPENAK

- **Bazkide kopurua:** Biziola Kooperatiba abiatu genuenean bi helburu ezarri genuen helburuetako bat bazkideztarena izan zen. 500 bazkide kooperatiban biltzea zen helburua eta momentuz ezin izan dugu helburu hau lortu. Momentu honetan Biziolak 447 bazkide dauzka eta hurrengo hilabeteetan bazkideztza kanpaina berri bati ekingo diogu 500 bazkide tara iristeko.
- **Kapitala:** Kooperatiba abiatzerako garaian jarri genuen bigarren helburua ere ezin izan dugu bete, 100.000 euroko kapitala lortzea izan zen bigarren helburua eta oraindik ez gara iritsi kopuru honetara. Bazkide izateko interesa erakutsi duten hainbat udalek ezin izan dute bazkideztza burutu arrazoi teknikoengatik eta honek 100.000 euroko kapitala oraindik ez lortzea eragin du neurri handi batean. Momentu honetan Biziolaren kapitala horrela banatzen da bazkide motaren arabera banatuta:
 - *Bazkide erabiltzaile fisikoak:* 29.250€
 - *Bazkide erabiltzaile juridikoak:* 300€ (bazkide erabiltzaile juridikoak lortzeko kanpaina aste honetan jarri dugu martxan)
 - *Bazkide laguntzaileak:* 40.274€
 - *Bazkide langileak:* 100€

Beraz memoria hau idazterako garaian 69.924€ ko kapitala dauka kooperatibak, oraindik 100.000 eurotatik urrun


- **Denda:** Dendari dagokionez ez zen helburu zehatzik definitu, jarri zen helburu bakarra denda hurrengo batzarrerako irekia egotea izan zen eta helburu hau lortu da. Lehen fase batean irekiera mugatu bat burutzea erabaki zen (13:00 - 19:00 ordutegiarekin) baina behin martxa hartuta hau egun guztira zabaltzea erabaki zen. (10:00 - 19:00). Denbora batean ordutegi hau mantentzea aurreikusten da Abuztuko salbuespenarekin. Abuztuan denda ez da itxiko baina ordutegi mugatu batekin lan egingo dugu, printzipioz 10:00 - 15:00 ordu tartean. Dendaren emaitza ekonomikoei dagokienez oraindik goiz da balorazio egoki bat burutu ahal izateko baina irekieran egindako aurreikuspenak betetzen ari gara momentuz.
- **Proiektuak:** Hurrengo atalean argi ikusiko den bezala, dendaren irekieraz gain azken

hilabete hauetan beste hainbat proiekturen inguruan aritu gara lanean. Azken batzarrean martxan genituen elikadura beste bi proiekturi jarraipena ematen ari gara (sentsibilizazioa eta ekoizleen trantsizioen proiektuak) eta elikaduraren inguruko beste bi proiektu berri jarriko ditugu martxan urtea bukatzerako (banaketa sistema eta ekonomia zirkularreko proiektuak).

- **Obra:** Obrari dagokionez helburua garbia zen, batzar hau iristerako lehen solairuko obra guztia amaituta izatea, bertan aktibitate ezberdinak martxan jarri ahal izateko. Helburu hau neurri batean bete da, lehen solairuan aurreikusten diren aktibitate guztiak martxan baitatude; denda, logistika gunea, barra, plaza eta asti-goxoren obradorea. Bestalde oraindik pendiente daude lantxo batzuk lehen solairuko obra guztiz amaitu kontsideratua izan dadin. Hurrengo asteetan azken auzolan deialdi bat burutuko da lan txiki hauek bukatzeko.
- **App-a:** Azken helburu nagusia banaketa sistema martxan jartzeko beharrezkoa zen apparen garapenarena zen. Azken hilabete hauetan appa probatzen aritu gara eta hainbat moldaketa egin ostean Appa prest dago, bai banaketa sistemari erantzuteko bai bazkideenganako komunikazio kanal gisa erabiltzeko ere. Apparen aurkezpenak batzarreko gai ordeneko puntu propio izango du.



2.2. 2022KO JARDUERA LAN-ILDOKA



- Elikadura:

Trantsizio ekologiko eta bidezkoa: Ekoizleekin aurrelanketa bat burutua zegoen proiektu honi 2022ko abenduan ekin genionean. Lehen fase batean adierazle sistema bat garatu genuen eta sistema hau oinarri hartuta bazkide diren ekoizleen lehen diagnostiko bat bukatzen ari gara momentu honetan. Uztailetik Urrira bitartean diagnostikotik lortutako ikasgaiak kontsumitzaileen eskura jarriko dira sentsibilizazio kanpaina baten bitartez. Proiektu honen lehen fasea 2023ko Urrian amaituko da eta kanpo finantziazioaren laguntzarekin (GFA) %85 burutu da. Proiektuari jarraipena emateko helburuarekin proiektu berri bat diseinatu dugu eta honentzat ere iturri beretik lortu dugu finantzabidea; 2023ko kudeaketan emango dugu honen berri batzarrean.



Denda: Azken hilabeteetan Biziolako kideoi esfortzu handien eskatu digun proiektua dendarena izan da. 2023ko Urtarrilean jarri genuen denda eta momentu honetan esan dezakegu lortu dugula bere funtzionamendua pixka bat egonkortzea. Behin egonkortuta hurrengo bi hilabeteetan dendaren martxaren beherakada bat aurreikusten dugunez udako ordutegiaren ondorioz, hausnarketarako aprobetxatuko dugu Irailera begira dendari bultzada berri bat emateko.





Denda

bizi
ola



Ander Del Río eta Joseba Irazusta, ekoizle hasi-berriak

Banaketa sistema: Hasiara batean dendaren banaketa sistema martxan jartzea genuen helburu, baina bere konplexutasunaren ondorioz proiektu honen garapen kontrolatuago bat burutzen saiatzen ari gara. Aurrelanketa garrantzitsu baten ondoren Martxoan ekin genion banaketa sistemaren proba pilotuari, Uztailaren 30ean amaiatuko den proba. Proba pilotu honetan hainbat banaketa egin ditugu edo egingo ditugu; hainbat herritan aritu gara (Ataun, Gabiri, Segura eta Mutiloa), enpresa batean hasiko gara hurrengo astean (Panelfisa) eta jatetxe batean (Insausti) Uztailean. Proba pilotuan ikasten ari garenekin hurrengo bi urteetarako proiektu bat landu dugu eta honen finantziazioa bilatzen ari gara.



Sentsibilizazioa: Martxan jarri genuen lehen proiektua sentsibilizazioarena izan zen, batez ere ikastetxeetara bideratu genuen elikaduraren inguruko sentsibilizazio proiektua. 2021 bukaeran ekin genion proiektu honi eta Biziola Kooperatibaren eraketarekin bultzada bat eman zaio lanketa nagusiak 2022an burutu direlarik. Sentsibilizazioaren gaia arnas luzeko proiektu gisa lantzen ari gara, puntualki burutzen ditugu ekintzak eta inguruan suertatzen zaizkigun aukerez baliatzen gara gure inguruan eragiteko. Epe ertain eta luzera begira proiektu honi jarraipena ematea da asmoa eta horretarako finantzazio bila gabiltza, lortuko bagenu bultzada bat eman nahiko genioke gai honi hurrengo hilabeteetan.






Zerbitzuak:

Interkooperazioa: Azken hilabeteetan lantzen ari garen beste proiektu estrategiko bat da. Biziola Kooperatibaren lan-lerroen artean interkooperazioa eta lankidetzak aurkitzen dira eta helburu hori lortzeko lehen pausuak ematen ari gara. Biziola osatzen duten hainbat kooperatiba txikirekin lanketa bat burutu da azken hilabeteetan berain beharrak identifikatu asmoz. Identifikatu diren behar amankomunak kontuan izanik interkooperaziorako estrategia bat garatzen ari gara, kooperatiba hauei Biziolatik zerbitzu eskaintza batean bilakatuko dena. Proiektu hau bukatzen ari gara momentu honetan eta bere emaitzak baliatuz kudeaketa planean planteatuko hurrengo hilabeteetarako zerbitzu eskaintza hau.


Formazioa: Biziola Kooperatibaren lau lan-lerroetako beste bat formazioa eta heziketarena da. Azken hilabeetan Uggasarekin elkarlanean formakuntza ziklo bat martxan jarri dugu. Formakuntza saio hauetan Biziolaren balioak oinarri hartuta formakuntza orokor bat eskaini da ekintzailatza sozial kooperatiboaren inguruan eta Uggasak intereseko ikusten zituen gai konkretuen inguruko trebakuntza intentsiboak. Formakuntza zikloa burutu berri dugu eta momentu honetan bidelaguntza fasean gaude, kulturaren inguruan martxan jarri daitekeen proiektu berri baten bidelaguntzan.



Aholkularitza: Zerbitzuekin bukatzeko azken hilabeteetan landu dugun beste gaia aholkularitzarena izan da. Aholkularitza bi mailatan burutu dugu, batetik udalei beraien lanketa estrategikoak diseinatzen lagundu diegu eta barrura begira Biziola sareko hainbat kooperatibari doako aholkularitza eskaini diegu beraien proiektuak sendotzeko helburuarekin.

Fabrika:

Obra: Dendarekin batera azken hilabete hauetan dauzkagun proiektuen artean esfortzu gehien eskatu diguna obrarena izan da. Lehenik espazio bere osotasunean, gero plaza eta dendaren prestakuntza eta bukatzeko azken hilabeteetan logistika gunearen eta obradorearen prestaketak lan handia suposatu du. Zortez, hilabete askoren ostean, esan dezakegu obra ia bukatua dagoela eta hurrengo bi edo hiru asteetan pendiente dauden lan txiki batzuk bukatuta lehen solairuaren obra bukatutzat emango dugula.





Espazioaren kudeaketa: Behin lehen solairuko obra bukatuta eta bertan aktibitate ezberdinak martxan jartzeko baimen guztiak lortuta momentu honetan espazioaren kudeaketan lanean ari gara. Ondo definitu nahi dugu espazioan martxan egongo diren proiektuen artean nola burutuko den honen kudeaketa eta lotuta utzi etorkizunean eraikineko beste espazioetan martxan jarriko diren beste proiektuei begira. Espazioaren kudeaketaz ari garenean hainbat gai ezberdinez ari gara: espazioaren alokairua, garbiketa, erabakitze guneak...

Plaza: Bukatzeko, fabrikarekin lotutako azken proiektua plazarena da. Azken batzarrean plazaren erabilera egituratzeko lehen pausuak eman ziren, baina oraindik lanketa hau guztiz burutzeko gaude. Hainbat ekintza burutu ditugu plazan; kontzertua, kata, hitzaldiak, batzarrak, aurkezpenak... baina banaka antolatzen joan gara estrategia bat definitu gabe. Jakinda plaza erabiltzeko kanpo interes bat badagoela eta behin denda egonkortuta langileok dauzkagun hainbat ideia martxan jartzeko aukera izango dugula, hurrengo asteetan eta kurtso berriari begira plazaren erabilera egituratuko dugu eta beharrezko azpiegitura osatu.



- 2.3. 2022KO KONTUAK

BIZIOLA, S.COOP.					Fecha : 09/06/2023 Hoja : 1				
BALANCE SITUACION ABREVIADO									
A Diciembre del Ejercicio 2022 En €									
ACTIVO					PATRIMONIO NETO Y PASIVO				
Código Cuenta	Nombre de la Cuenta	Nota	Ejercicio 2022	Ejercicio 2021	Código Cuenta	Nombre de la Cuenta	Nota	Ejercicio 2022	Ejercicio 2021
A) ACTIVO NO CORRIENTE			20.087,20	0,00	A) PATRIMONIO NETO			47.243,07	0,00
II. Inmovilizado material			4		A-1) Fondos propios			7	
21100000	Construcciones		7.942,19	0,00	I.Capital			66.684,00	0,00
21300001	Labore inbertsioa		13.223,14	0,00	1. Capital escriturado			66.594,00	0,00
28110000	Amort. acum. de construcciones		-61,94	0,00	10000001	Bazkide kontsumitzaileak		3.000,00	0,00
28130000	Amort. acum. de maquinaria		-1.016,19	0,00	10000002	Bazkide laguntzaileak		40.274,00	0,00
Total II.			20.087,20	0,00	10000003	Bazkide erabiltzaile fisikoak		23.020,00	0,00
B) ACTIVO CORRIENTE			15.520,08	0,00	10000004	Bazkide erabiltzaile juridikoak		300,00	0,00
III. Deudores comerciales y			5		VII. Resultado del ejercicio			-19.350,93	0,00
3. Otros Deudores			9.298,73	0,00	Resultado del Periodo			-19.350,93	0,00
47000000	Hacienda Pública, deudor por IVA		9.298,73	0,00	12900000	Resultados del ejercicio		-19.350,93	0,00
Total III.			9.298,73	0,00	Total A-1)			47.243,07	0,00
VII. Efectivo y otros activos			5		C) PASIVO CORRIENTE			-11.635,79	0,00
57200000	LABORAL KUXA		6.221,35	0,00	III. Deudas a corto plazo			6	
Total VII.			6.221,35	0,00	3. Otras deudas a corto plazo			-14.556,00	0,00
Total ACTIVO			35.607,28	0,00	52100001	Biziola Elkarteak mategia		-14.556,00	0,00
					Total III.			-14.556,00	0,00
					V. Acreedores comerciales y			6	
					2. Otros acreedores			2.920,21	0,00
					41000000	Acreedores por prest. servicios (€)		0,20	0,00
					41000003	Lastadi, S.L.		-690,37	0,00
					41000004	AHOLKU, KOOP.ELK.TXIKIA		126,01	0,00
					41000006	BigMat Urbil		1.471,49	0,00
					47510000	Hacienda P., acre. por retenc.prac.		2.012,88	0,00
					Total V.			2.920,21	0,00
					Total PASIVO			35.607,28	0,00

BIZIOLA, S.COOP.

Fecha : 09/06/2023 Hoja : 1

PERDIDAS Y GANANCIAS ABREVIADO

Desde Enero Hasta Diciembre del Ejercicio 2022 En €

Nombre de la Cuenta	Nota	Ejercicio 2022	Ejercicio 2021
1. Importe neto de la cifra de negocios		2.160,00	0,00
70500000 Prestaciones de servicios		2.160,00	0,00
6.- Otros ingresos de explotación		7.000,00	0,00
74000001 Goleeri Ekimena Saria		7.000,00	0,00
7. Otros gastos de explotación		-27.422,80	0,00
62100000 Arrendamientos y cánones		-23.211,99	0,00
62200000 Reparaciones y conservación		-428,55	0,00
62300000 Servicios de profesionales indepen.		-1.072,47	0,00
62600000 Servicios bancarios y similares		-205,07	0,00
62900000 Otros servicios		-780,79	0,00
63100000 Otros tributos		-1.723,93	0,00
8. Amortización del inmovilizado	3-4	-1.078,13	0,00
68100000 Amortización inmoviliz. Material		-1.078,13	0,00
A) RESULTADO DE EXPLOTACION (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)		-19.360,83	0,00
B) RESULTADO FINANCIERO (14+15+16+17+18+19)		0,00	0,00
C) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A+B)		-19.360,83	0,00
D) RESULTADO DEL EJERCICIO (C+20)		-19.360,83	0,00


3 2023ko kudeaketa plana eta aurrekontuak

2023ko bigarren seihilekoa kooperatibaren egituraketarekin aurrera jarraitzeko baliatzea da asmoa.

- 3.1. HELBURUAK

- **Bazkide kopurua:** Abiapuntuan lortu ez ziren 500 bazkideak lotzea izango da hurrengo helburua. Horretarako bazkidetza kanpaina berri bat martxan jarriko da, urtea amaitzerako 500 bazkideak gainditzeko helburuarekin.
- **Kapitala:** 2023ko lehen seihilekoaren itxieran 69.924 €ko kapitala bazegoen, bazkidetza juridikoan egingo den kanpainaren bidez, erabiltzaile fisikoentzako kanpainaren bidez 100.000 €ko kapitalera hurbiltzea izango dugu helburu datorren seihilekoan.. Arrazoi teknikoengatik bazkidetu ez diren udalekin beste bide batzuk jorratuko dira.
- **Denda:** 2023a amaitzeko, bi langilerekin proiektua bideragarri bilakatzea da helburu ekonomiko nagusia. Honen ondotik, urteko garaikotasuna aintzat hartuta, ekoizleekin harreman zuzenak bideratzea ere helburu izango da. Eta nola ez, bertako ekoizleak proiektura gehitzea (martxan daudenak zein berriak). Lehen urtea denez, zikloa itxi eta urte osoko balorazioa egin beharko da datorren urtarrilean.
- **Proiektuak:** Elikadura alorrean martxan dauden proiektuei jarraipena eman eta landu diren bi berriak aktibatzea izango da datorren seihilabeteko erronka nagusia. Interkooperazioan sakontzea ere proiektugintzaren helburu izango da.
- **Obra:** Behin lehen solairuko lanak erabat amaituta, goiko solairuaren lehen diseinua bideratzea espero da.
- **Egitura:** Kooperatibaren egitura egonkortzea izango da. Langileak eta beraien lan-baldintzak erabaki, barne araudi baten bidez arautu, lan-taldeen inguruko hausnarketa burutu bazkideen partehartzea bermatzeko, e.a.

- 3.2. JORRATUKO DIREN LAN-ILDOAK



-


- Elikadura:

Trantsizio ekologiko eta bidezkoa: 2022an abiatutako prozesua azaroan urri-azaroan amaituko bada ere, GFaren sustapen ekonomikoko sailak enpresen trantsizio ekologiko eta bidezkoa bideratutako 2023ko deialdiari lotuta emango zaio jarraipena proiektuari. Urritik aurrera beraz, egun lantzen ari den diagnostikotik ateratako beharrei erantzuna ematen saiatuko gara. Horretarako, esperientzia eredugarriak ezagutzera emateko bisitak, formazioak zein lantaldekako estrategia kolektiboen bilaketa-ariketak burutuko dira. Prozesu honek, 2024ko maiatza bitarte iraungo du, eta ekoizle zein kontsumitzaileengan eragitea espero da beronen bidez.

Denda: Urte osoko datuak biltzen jarraitzea, eguneroko lanari modu eraginkorrean erantzuteko tresnak sortzea eta proiektuaren bideragarritasuna lantzeko estrategiak bilatu eta aktibatzea izango da datorren sei hilekorako lan-ildoak. Garaikotasunaren arabera egokitzen diren produktuen ekoizleekin zuzeneko harremanak bilatu eta hauek komunikatzea ere landu beharreko alorra izango da. Adierazleen-lanketatik sortuko den irudia espaziora ekartzea eta kontsumitzaileen kontzientziaziorako tresna dendara egokitzea ere denbora-tarte honetan egin beharreko lana izango da. Azken lanketa honekin, eskualdeko ekoizleak bistaratzeko eta egiteko moduak ezagutzeko probestuko da.

Banaketa sistema: Memorian adierazi den moduan, Uztailaren 30ean amaituko da proba pilotua. Banakoei zuzenduriko banaketa Ataunen probatu da, bai eta azoka ibiltaria Ataun, Segura, Gabiri eta Mutiloan ere. Panelfisa enpresan banaketa ere abiatu da. Behin probaldi hauek amaituta, emaitzak aztertu eta banaketaren kontsolidaziorako eman beharreko hausnarketa, bideragarritasun azterketa eta antzerakoak egitea tokatuko da. Kontsolidazio fase honetarako Nina Carasso fundazioaren "Del campo a la mesa" deialdian parte hartu da, eta egun, lehen fasea gaindituta eta instrukzio-fasea pasata, azken ebazpenaren zain gaude. Dena den, lanketa honetarako Legorretako Ederfill enpresaren babesa zein Eusko Jaurlaritzako landa-garapenerako planeko lankidetzaren deialdiarena ere jaso da, eta bide hauek lantzen jarraituko da. Azken laguntza honen bidez, Legorretako adinekoen arreta-zerbitzuko menuak bertako elikagaiez hornitzeko lanketa integral bat abiatua da iada, abendurarte iraungo duena, eta banaketaz haratago, elikadura osasuntsurako eskubidea ere mahai gainean jartzen duena, nutrizionista baten laguntzaz erabiltzaile hauen elikadura-beharrak aztertuz eta egokituz. Banaketa-zerbitzuaren bideragarritasun azterketa eta negozio-eredua lantzeaz haratago, faseka banaketa-kanalen kontsolidazioa planteatzen da. Ebazpenen zain gauden bitartean, oinarritzko banaketa-kosteen azterketak burutuko dira udan zehar.

Sentsibilizazioa: Elikadura arloan lantzen dugun proiektu oro sentsibilizazio-lanketa integratuarekin osatzeko saiakera egiten bada ere, elikadura proiektuak oinarrian duen helburua lortuko bada (elikadura burujabetza indartzea), ezinbestekoa da kontsumitzaileen kontzientzia indartzea. Honetarako, herritar guztietara heltzeko formulak bilatu behar dira, gizarte osora iristea bermatuz. 2023ko irailetik 2025eko irailera bitartean lantzeko sentsibilizazio-lanketa integrala landu da, GFaren Garapenerako Heziketa proiektu gisan. Ondoko eskeman azaltzen da laburturik eremu desberdinetara bideraturiko kanpaina integrala.



Ekonomia zirkularra: Momentuz elikaduraren inguruan martxan jarriko dugun azken proiektua ekonomia zirkularrarena da. Dirulaguntza bat lortu dugu Uztailetik Abendura ekonomia zirkularraren inguruan izan ditzakegun lanketa aukerak aztertzeko eta horiei ekiterako behar beste informazio izateko proba pilotu bat burutzeko. Irailetik Abendura emango diogu forma proba pilotu honi eta helburua batetik Biziola dendako soberakinei bigarren bizi bat ematea da Goierriin dauzkagun sukalde/obradore batekin elkarlanean eta bestetik Uztaolarekin elkarlanean Goizanen aurkitzen den transformazio gunea erabiliz produktu berri bat garatzea. Proiektu hau abiapuntu bat besterik ez da, asmoa denboran zehar Uztaolaren eta Goierriko obradore ezberdinekin elkarlanean ekonomia zirkularreko proiektu anbiziotsu bat burutzea baita.

Zerbitzuak:

Interkooperazioa: 2022ko GFaren Lantoki Eraldatzaileetako deialdiari esker ateratako diagnostikotik abiatuz, eta 2023rako lortu den ebazpen positiboarekin, interlankidetzak arakatzen jarraitzea da asmoa, Biziola Sarearen baitan helburu dugun eskualdearen eraldaketa bideratzeko tresnak sortu asmoz. Xeheago azalduz, barne interkooperaziorako tresna eta estrategiak martxan jarri, zerbitzu eskaintza bateratua abiatu, espazio fisiko partekatuaren aukerak aztertu (Biziola Fabrikaren goiko solairuaren aukerak arakatuz), enpresa hedaturantz pausoak ematen jarraitzeko klabeak identifikatu eta lortutako emaitzen ebaluaketa eta ondorio ateratzea landuko dira proiektu honen bitartez.

Aholkularitza: Behin udal berriak eratuta, aholkularitza zerbitzuak indartzeko asmoa daukagu, batez ere udalei begira, udal estrategiak garatzen laguntzea helburu, beraien aldetik jaso baitugu zerbitzu hau jasotzeko interesa. Aholkularitza hau interkooperazioak eskaintzen dizkigun indarguneetatik abiatuko da beti ere.

Fabrika:

Espazioaren kudeaketa: Espazioaren alokairua, garbiketa, espazio amankomunen erabilera, erabakitze-guneak,... Espazio partekatuek antolaketa eskatzen dute, eta barne-kudeaketa hau nola burutu lantzen gabea egun. Uztailean gai honen inguruko lanketa abiatuko da, etorkizunean eraikineko beste espazioetan martxan egon daitezkeen proiektuen arteko uztarketa eta bizikidetzaren egokia bermatu ahal izateko.

Plaza: Erabilera baldintzen zirriborro bat landuta badago ere, oraindik plazaren egituraketan pausoak daude emateko. Hainbat ekintza burutu dira, baino beharrezko egitura osatzeke dago oraindik. Horregatik, datorren seihileko tarte honetan, erabilera baldintzak finkatzeaz amaitu, erabiltzaile posible guztiei ezagutzera eman eta gonbitea luzatuko zaie batetik. Baino bestalde, jarraitu nahi den estrategia landu eta ekintzak horretara bideratzeko saiakera egiteko lanketa burutuko da. Egun, plazak martxan dugun elikadura lan-ildoaren beharrei erantzuteko espazioaren funtzioa bete behar du, eta bide hori jorratzeko aurrez aipaturiko sentsibilizazio jardunez aparte, Eusko Jaurlaritzaren GJH Bonoen eskaera ere burutu da, ekintzak finantzatu ahal izateko. Honekin, udazkenerako eskaintza antolatu ahal izatea espero da.

Egitura: Espazio fisikoaz haratago, Biziolaren barne-egitura ere landu behar da. Egundak bi langileek jarraitu beharreko eskubide eta betebeharrak zehaztuko dituen barne-araudia lantzea eta bazkide-langile izateko prozesua esplizitatzea datorren seihilabeterako lana izango da. Eta behin oinarriak finkatuta, barne-funtzionamendu egokia bermatuko duen funtzioen banaketa eta arduren zehaztapenean pausoak ematen joan beharko da. Lan hauek modu antolatuan egitea ezinbestekoa da egitura egonkorra eraikitzeke. Azken lan-ildo moduan utzi dugun lan-ildo estrategikoen lanketatik, langile berrien kontratazio-perfilak zehaztuko dira, eta giza baliabideen sarea modu egokian hazteko aurre lanketak eginda izatea komeni da.

2024-2025erako lan-ildo estrategikoen inguruko lanketa: elikadura proiektuak, egituratze bidean 2 urteko aurrelanketa eskatu du. Eta egokia deritzogu lan-ildo estrategiko berriei ere hausnarketarako tarte eskaintzea. Prozesu bat irudikatzen da lanketa hau burutzeko, zeina tematika desberdinen arteko indar neurketa batetatik abiatuko litzatekeen. Jarraian, lan-ildo estrategikoaren helburuen zehaztapena burutzeko hausnarketa-prozesua burutuko litzateke, horretarako beharrezko diren lan-taldeen sorrera sustatuz. Hau litzateke beraz jarraitu beharreko prozesua: Bilera irekia → Eragileen identifikazioa → Gaiaren inguruko erronken definizioa → Lan-dinamiken aktibazioa.

3.3. PROIEKTUEN AURREKONTUAK

